

## Irizar Transportemessen azokan presente, i6 modeloko autokar integralarekin.

*Herning, 2015eko martxoaren 19a*

Irizar lehendabiziko aldiz egongo da Herningen (Danimarka), Irizar Danmarken eskutik, konpainiaren berrikuntza lerroarekin bat egiten duen 400 m<sup>2</sup>-ko stand propio batekin, halaber segurtasun, fidagarritasun eta zerbitzuaren balioak transmitituz. Mundu osoarentzat irekia, bere diseinuak Irizarren izaera bera islatzen du, filosofia ireki eta gardenarekin, eta 125 urte baino gehiago izateak ematen dion sendotasunarekin. Bertan Irizar i6 modeloaren jatorrizko bertsioa ikusi ahal izango da, DAF-PAccard Euro 6 motorrarekin, Danimarkako bezeroek eskatzen dituzten espezifikazioen arabera guztiz pertsonalizatuta. Berez, Rødbillet bezeroak erositako autokar bat da.

Irizarrek salmenta eta saldu ondoko zerbitzuen sarea sortzeko orduan Danimarka da lehenetsi dituen merkatuetakoa, eta horrela berretsi egiten dute daniar merkatuarekin duen konpromisoa eta beti bezero, gidari, teknikari eta prentsaren ondoan egoteko nahia. Irizar Denmark 2012an ezarri zen, eta zuzendaria sektorean oso ezaguna den MD Christian Brædder da.

### Irizar – Euro VI autokar integrala

2009. urtean Busworld azokan lehen prototipoak aurkeztu zirenetik, dagoeneko ia 300 dira Irizar markarekin Europan zirkulatzen duten autokarrak, emaitza handiak lortuz bezeroen gogobetetzeari dagokionez, bai produktuari bai zerbitzuari buruz.

Irizar autokar integrala **segurtasun aktiboan zein pasiboan** azken aurrerapenak eskaintzen dituen autokarra da.

Hauek dira segurtasun aktiboa osatzen duten elementuak:

- EBS: frenatzen laguntzeko sistema elektronikoa.
- ECAS: suspentsio pneumatikoko sistema kontrol elektronikorekin.
- ESC: egonkortasunaren kontrol elektronikoa.
- ABS: gurpilak ez blokeatzeko sistema.
- ASR: trakzioaren kontrola.
- TPMS: pneumatikoaren tenperatura eta presioa monitorizatzeko sistema.



- ACC: abiadura kontrol moldagarria (hautazkoa).
- LED eta BIXENON argiak bidegurutze eta errepiderako.
- ISOFIX eta all-age sistema jarlekuetan.

Segurtasun aktiboaren arloan eskaintzen den azkena Irizar Taldeak gidatzen laguntzeko garatutako sistemak dira, adibidez MagicEye eta EcoAssist (hautazkoak), erregaia aurrezteaz gain, distraitzeko eta talka egiteko arriskua minimizatzen laguntzen dutenak.

Magic Eye sistema teknologiko aurreratu bat da, distraitzeko eta talka egiteko arriskua minimizatzen laguntzen duena, gidaritza seguruagoa izaten laguntzen duen ikusmen artifizialeko teknologiari esker. Besteak beste oztopo eta seinaleak detektatu, segurtasun tarteak kalkulatu, nahigabeko errai aldaketak, abiadura mugak jakinarazi eta gidariaren nekeaz ohartarazi egiten dituen sistema.

EcoAssist erregai kontsumoa murrizten laguntzen duen soluzioa da, gidariari era eraginkorrean gidatzeko jarraibideak ematen baitizkio. EcoAssist hainbat informazio motatan oinarritzen da (ibilgailuaren kokapean, gidariaren gidatze estiloa, mapa orografikoak eta GPS sentsoak). Sistemak informazio hori guztia konbinatu eta, ibilgailuen kontsumo ereduak gida gisa erabilita, ikasi eta jarraibideak sortzen ditu. Jarraibide horiek gidariari erakusten zaizkio zuzenean, pantaila baten bitartez.

Konponbide horiek bidaiarien segurtasuna eta erosotasuna hobetzen ditu, bezeroaren ikuspegitik fidagarriagoak eta errentagarriagoak izaten laguntzen dute.

## Fidagarritasuna

Gure Euro VI ibilgailuek arrakastaz gainditu dute iraunkortasun azeleratuko saiakuntzak – 1,5 milioi kilometro ibiltzearen parekoa–, zeinak nazioarteko instituturik entzutetsuenetakoa den IDIADA Applus+ institutuaren instalazioetan egin baitira.

Aldi berean, belaunaldi berriko diagnostiko tresna bat sartu da, eta horri esker posible da SIM edo WiFi bidezko urrutitik konektatzea.

**Autokar errentagarria** – erregai kontsumoa minimizatzen du, hainbat kontzeptu sartuta, esaterako, aerodinamikotasuna eta forma biribilduak, alboko haizeekiko erresistentzia eta kontsumoaren murrizketa handitzeko, eta osagaien zaintzarako eta estandarizatorako lekuetarako sarbidearen optimizazioa,



**Autokar arina** – Euro VI modeloarekin pisu totala optimizatzea eta banaketa hobetzea lortu da, Euro Varen mailak mantenduz, powertrainaren multzoaren pisuaren hazkundeak konpentsatuta. Hobekuntza horiek markak egin ohi dituen iraungarritasun saiakuntzetan balioztatu dira. Gainera, erregai kontsumoaren maila eutsi diegu, eta merkatuko ratorik onenetakoa lortu.

## Laguntza Zerbitzua, 24 orduz, urteko 365 egunetan – Irizar Danmark edo Irizar Europa

Europar plazaratu eta hiru urteren buruan, Irizar marka autobus integralen erreferentzia izaten hasi da.

Danimarkako, Frantziako eta Erresuma Batuko merkatuen beharrak asetzeko Irizar Danmark, Irizar UK eta Irizar Autocarsez gain, eta Wanikirekin Polonian, DV BUS and COACHekin Beneluxen eta Rindellekin Finlandian sinatutako akordioez gain, markak Alemanian eta Suedian hedatzen jarraitu du, aurki banaketarako beste hitzarmen batzuk sinatuko baititu. Herrialde horiek guztiek jada badute banaketarako eta salmenta ondoko zerbitzu bat, urteko 365 egunetan eta eguneko 24 orduetan martxan dagoena.

Europar hedatzeko fase horren baitan, aurten autokar integralen fabrikazioa bikoiztu dugu eta Estatu Batuetara egingo dugu salto, eta lehenengo unitateak saltzen hasiko gara bertan.

## Irizar Taldea

Irizar enpresa talde bat da, nagusiki autobusak eta autokarrak diseinatzen, fabrikatzen eta komertzializatzen jarduten duena. Horrez gain, elektronikaren, komunikazioen (ITS soluzioak) eta makineria birakarien sektoreetan dihardugu.

2.500 pertsonak baino gehiagok osatutako proiektu globala, bost herrialdetan autobusak eta autokarrak egiteko produkzio lantegiak dituen (Espainia, Maroko, Brasil, Mexiko eta Hegoafrika), Espainian bost enpresa partaidetu, eta presentzia komertziala bost kontinenteetako 90 herrialdetan baino gehiagotan. Egoitza nagusia Gipuzkoako Ormaiztegi herrian dauka (Espainia), eta bertan karrozeriak ez ezik autokar eta autobus integralak fabrikatzen ditu Europako merkaturako. Egoitza nagusian, halaber, Creatio dago, produktu integral eta elektrikoetarako zein karrozeriaren osagai nagusietarako Irizar Taldeak dituen ikerketa aplikaturako eta garapen teknologikorako ahalmenak bultzatzeko sortutako Ikerketa eta Garapen Zentroa. Duela gutxi %100 elektrikoa den zero igorpeneko autobusa aurkeztu du merkatua, I Klasekoa eta Taldeak berak egindako teknologia duena.



1889an sortu zen eta 125 urte baino gehiagoko historia du, eta sektoreko lider nabarmena da Espainian, bai eta erreferentzia nagusietako bat munduan. Era berean, luxuzko autokarren segmentuan liderra da Europako hainbat herrialdetan, esaterako, Espainian, Erresuma Batuan, Irlandan eta Israelen.

Irizar Taldeak urtea 535 milioi euroko guztirako fakturazio bateratuarekin ixtea espero du, horietatik %82 esportazioko merkatuena izanik, eta guztira 3.000 Premium unitate fabrikatuta.

Guztirako zenbatekotik, 2014an Espainiatik kanpoko plantek Taldearen guztirako salmenten %42 egin dute, eta aurreko urtean, berriz, %47 egin zuten; Ormaiztegiko plantek, ordea, 2014an %38 egin dute, eta aurreko urtean, %33. Taldeko gainerako konpainiek fakturazioaren gainerakoaren %20 egin dute.

Hala, aurten berriro hazkundeaz hitz egingo du Ormaiztegiko Irizarreko autobusen produkzioari dagokionez, aurreko urteko produkzioarekin alderatuta %15eko hazkundera egon baita, eta aurreko urtean ere %15eko hazkundera izan zuen 2012ko datuekiko. Merkatu kuotari dagokionez, %47ko kuota lortu dugu Espainian, Irizarrek bere historian izan duen kuotarik handiena, alegia. Hazkunde horren arrazoi nagusiak dira, alde batetik, Irizar markako autokarren zein autokar konbentzionalen unitate gehiago produzitu direla eta, bestetik, ibilgailu horien ekipamendua handitu dela Europako merkatuen eskariari erantzuteko.

Horrez gain, Irizarren 125. Urteurrenarekin batera, joan den urtean produkzio eta zerbitzuko instalazio berriak inauguratu ziren Gipuzkoako egoitza nagusian: diseinu zentroa, gune korporatiboa, I+G zentroa eta autokarrak entregatzeko eraikina. Horri guztiari kanpo komunikazioaren alorrean egindako ahalegin handia gehitzen badiogu, Taldearen irudian salto handia eman da.

Irudiaren hobekuntza hori, kalitatean eta zerbitzuan izandako hobekuntzekin batera, posible egiten ari da gure marka indartzea eta 2015eko urtea berriro baikortasunez ikustea, autokar integralen fabrikazioa bikoiztu eta Estatu Batuetarako lehenengo unitateak zerbitzatzeko hasteko asmoarekin.

## Irizar i2e.

Irizar markako autokar integralen gama merkaturatzearekin batera, 2011n hirietarako mugikortasun iraunkorreko proiektua hasi zen, %100 elektrikoa den zero igorpeneko autobusa garatzeko, ZeEus proiektu europarraren baitan.



Irizarrez gain, Taldeko gainerako enpresek indarrak batu dituzte Irizar i2e modeloa bultzatzeko: Hispacold, klimatizazio ekipamenduen fabrikatzailea; Jema, elektronikan espezializatua; Datik, garraiorako soluzio adimendunak garatzen dituen enpresa teknologikoa; Masats, irisgarritasun sistemen fabrikatzailea, eta Creatio, Irizar Taldearen I+G zentroa.

Produktuari iraungarritasunari buruz egindako saiakuntzen ondoren, Irizar i2e Irizar Taldeak berak osorik garatutako europar teknologiako autobus moduan aurkezten da, fidagarria eta gure hirietan ibiltzeko prestatua, zero igorpenen plusarekin. Horrez gain, bere kostu operatiboak ohiko motorra duten unitateenak baino txikiagoak dira.

2014an, Irizar i2e aurkeztu zen Donostiako hirian. Irizar Taldearen lehen autobus elektrikoa da, eta Taldeak berak osorik garatutako teknologia du. Bartzelonak ere bi unitate erosi ditu, eta Madrilek eta Marseillak ere autobusaren prestazioak egiaztatzeko aukera izan dute.

Inoiz baino sendoago, Irizar gaur egun Talde indartsua da, sektoreko erreferentzia herrialde askotan, eta egoera finantzario inbidiagarria du, geografikoki dibertsifikatua eta industrialki etengabeko hazkundera duena; markaren, teknologiaren eta iraunkortasunaren alde irimo egiten duena, eta produktu propioen alde, bai autokar eta autobus elektrikoetan, bai presentzia duen sektoreetako gainerako produktuetan.